

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko abenduaren 2an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

17.- KONTSUMIGARRI INFORMATIKOEN HORNIDURARAKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Kontsumigarri informatikoen hornidura kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2014-2015 urteetarako hornidura kontratazino hau burutzeko deialdia zalbadu zan urriaren 29an lau ohiko hornitzaileei. Azaroaren 16an amaitu zan aurkezteko epea. Epearen barruan eskaintza bi aurkeztu dira:

LYRECO. Erregistro data eta zbk. 2013-11-11/11656

INFOPRODUCTS: Erregistro data eta zbk.: 2013-11-13/11803

PAPYNDUX enpresek uko egin dau aurkezteari, urriaren 30ean bialdutako agiri bidez.

MONTTE enpresek ez dau erantzunik emon.

Eskaintzen konparaketea egiteko, gaurko egunean Erosketa Sailak eskaintza ekonomiko bien konparaketea burutu dau.

Bigarrena: Eskaintzak baloratzeko erispideak, prezioa eta iraunkortasun erispideak izan dira. Biak formula proportzionalaren arabera baloratuko dira.

Argudioak

Lehenengoa: Jagokozan konparaketak egin ondoren, honeexek dira puntuaketak:

Konparaketarako prezioa, azken urteko kontsumoak bider banakako prezioak, kalkulatu dira.

KONTSUMIGARRI INFORMATIKOAK		
	LYRECO	INFOPRODUCTS
PREZIO KONPARAKETEA	8.032,02	5.375,04
REZIKLETA	ECO-PIL	BIOSERVICE
PREZIO PUNTUAKETEA	40,15	60,00
REZIKLETA	40,00	40,00

PUNTUAKETEA		
DANETARA	80,15	100,00

ESKAINTZARIK ONENA INFOPRODUCTS ENPRESEARENA DA

Bigarrena: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu dauen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 173.f) artikuluan xedatuta dagoz hornidura kontratu hau prozedura negoziadu bidez, publizidade barik burutu da, eta jagokon espedientearen tramitazioaren ondoren, eskaintzarik onenaren alde proposatu da esleipena.

Hirugarrena: Kontratu honen esleipena, indarrean dagoan epean eragiten dauzan obligazio guztiei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da, horrela izan ezean kontratua etenda gelditu daitekelarik, kontratua indarrean sartu baino ekitaldi bat lehenago formalizatutakoa dalako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entidadeetako Aurrekontuei buruzko Abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauak 56.3 artikuluan xedatzen dauen moduan.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontutan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrek:

Kontratu mota: Kontsumigarri informatikoen hornidurea.

Kontratu epea: 2014-2015 urteetarako, luzagarria beste horrenbestez.

Prezioa: 8.000,00€/urteko gehi BEZ % 21

Ordainketa era: Ohikoa

Gastu osoa: 9.680,00€ BEZ barru urteko.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko abenduaren 5ean.

ONETSIA
ALKATEA